

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Gazte nafarren % 17,5 bakarrik bizi daiteke beren diru-sarrerekin

Beste % 34 batek, ordainsairen bat badu ere, beste norbaiten laguntza eskatzen du; eta % 48,5 beste pertsona batzuen diru-sarreraren mende dago bakarrik, Nafarroako Gobernuko Gazte Behatokiaren arabera

Viernes, 13 de noviembre de 2015

Elkarrizketatutako gazteen ia erdia, % 48,5, beste pertsona batzuen diru-sarreraren mende dago ekonomikoki gaur egun. % 17,5 soilik bizi daiteke beren diru-sarrerekin bakarrik, eta beste % 34k beste pertsona batzuen laguntza jasotzen du, nahiz eta diru-sarrera propioaren bat izan; hala ondorioztatzen da Gobernuko [Gazte Behatokiak](#) gazte nafarren gizarteratzeari eta [azterketatik](#).



Nafarroako gazteek 375 euro inguruko batez bestekoa administratzen dute hilean.

Lan hori erakunde horrek gazte nafarren errealitatea egiaztatzeko urtero egindako azterketen barnean dago, eta aurten, honako honetan oinarritu da: egoera ekonomikoa, kontsumoaren aurreko jokabideak eta beren gizarteratzeko alderdiak ezagutzen. 22 eta 29 urte arteko 500 pertsonak osatutako lagin baten gainean egin da, 15 eta 30 urte artekoak.

Emaitzek diotenez, gazte nafarrek 375 euro administratzen dute batez beste eta hilaren arabera aldatu egiten da; 101 euro ikasten dutenen kasuan, eta 806,8 euro lan-merkatuan sartu direnen kasuan.

Gazteen kontsumoa

Pertsona horien erosketa-erabakiak bi aldagaien arabera bideratzen dira: prezioa (% 78,8) eta kalitatea (% 72,1). 25 urtetik aurrera, hala ere, beste balio batzuek garrantzia hartzen dute: prezioak, hurbiltasunak, barietateak edo norberaren uste osoak, adibidez. Aldiz, ospeak, "esklusibitateak", gutxiengo baten kontuan izan arren, gazteen artean garrantzi handiagoa dute.

Internetek eginkizun garrantzitsua betetzen du Nafarroako gazteen artean erosketak edo bidaiak kontratatzeke garaian. Gehienek, % 66,9k, bide hori erabiltzen du.

Hilean egindako gastu-partida nagusien artean, arropak eta oinetakoak nabarmentzen dira (hilean 70,9 euroko batez bestekoarekin),

eta atzetik datoz irudia eta norbera zaintzeko produktuak (25,8 euro, hilean). Ibilgailuen mantentze-lana, gehienek izan ez arren, 86,9 euro da hilean, eta telefonia mugikorrarena, ohikoenetarikoa, 21 euro azpitik.

Gazte gehienek kanpoko eraginetatik aske daudela uste dute (% 53,2), eta norberak dituen uste osoak direla erosteko eta kontsumoko ekintzen bideratzaile.

Gazteak eta aisialdia

Nafar gazteek aukeratzen duten aisialdi nagusia kirol-jarduera da (% 82,4), eta jarraian, atsedean hartzea (% 78,9) eta taberna/kafetegietan ibiltzea datoz (% 71,6). Edatarea edo kopa batzuk hartzea ateratzea gehienek aisialdi-jarduera bihurtzen da 20 urtetik aurrera.

Jarduera batzuek adinaren arabera eboluzionatzen dute, eta argi eta garbi ikusten da kultur jardueretan inbertitutako denboran (adinean aurrera egin ahala areagotzen da); kirol-jarduera, berriz, 20 urtetik beherakoen artean gehiago egiten da.

Aldagaiei dagokienez, generoan adibidez, ez da alde handirik topatzen, nahiz eta kirol-jarduera mutilen agendan presentzia handiagoa duen (% 86) adin bereko neskekin alderatuz (% 78,7); bideojokoekin jolastea gizonen % 45ak egindako aukera da, eta emakumeen % 16k hautatzen dute jarduera hori; emakumeen artean onarpen handiagoko jarduerak ere badira, bidaiatzea, zinemara edo antzerkira joatea, liburuak irakurtzea edo irratia entzutea, esaterako.

Etiket kanpo jaten gastatzen dute gehien guztiek (56 euro, hilean), eta haren atzetik datoz tabernetan edo kafetegietan ibiltzea (41 euro), txangoak egitea edo asteburuko irteerak (37 euro).

Biztanleria gaztea eta gizarteratzea

Gizarteratzeko gaiei dagokienez, Nafarroako gazteek ez dute immigranteekin esperientziak izateko arazorik edo ez dituzte errefusatzeko. Izan ere, gazteen % 37,1ek immigranteak dituzte beren lagunak artean.

Hamar gaztetatik zortzik ere ez luke arazorik izango etxebizitza bat immigrante bati alokatzeko edo ezaugarri horietako jendea dagoen kontzentrazio handiko auzo batean bizitzeko ere.

Gazteek langabeak eta beraiek bezalakoak normaltasunez tratatu behar direla diote, nahiz eta jokabide abegitsuagoa duten desgaitu, adingabe eta adineko jendearekin. Beste talde batzuekiko aldea ikus daiteke, ordea, etxerik gabekoen edo droga-mendekotasuna dutenen kasuan, adibidez.

Inkestari erantzundako hamar pertsonetatik bi diskriminatuta sentitu dira noizbait adinagatik, lankideek edo ikastetxeak bereziki eragindako presioagatik.

Berdintasun eza hautemateko orduan, emakume gazteen taldeak adierazi du genero-arrazoiengatik bidezkoa ez den tratua jasan behar izana (% 22).